

## DATUEN ERABILERA ARDURATSUAREN ALDE

**Laugarren Iraultza Industrialean** murgilduta gaude, digitalizazioan oinarritutako ekonomia- eta gizarte-aldaketa sakon batean, eta datuak dira horren erregai nagusia. Hala ere, oraindik gizartean ezjakintasun handia dago datuen erabilerari buruz, horien aukerei, balizko onurei eta arriskuei buruz, eta horrek datuak erabiltzearen eta berrerabiltzearen arriskuei buruzko pertzepzio desitxuratua eragiten du, ekonomia- eta gizarte-ikuspegitik ematen duen balio-katea kontuan hartu gabe.

Horregatik, [Pacto Pro Data Gipuzkoa Itun](#) hau, 'Eta orain, zer' ekimenaren komunitateetako batean egina, jakintza-arlo anitzeko ekimen irmoa da, gizartean konfiantza sortuko duen eta pertsonengan ardaztuko den datuen erabilera sozialki arduratsua sustatzeko, **3 printzipio etiko sendotan** oinarrituta: segurtasuna eta babesa, pribatutasuna bermatuz; inklusioa, ekitatea eta gardentasuna sustatzea; eta ingurumena eta etorkizuneko belaunaldiak babestea.

Txetxu Ausin CSICeko eta Globernanceko ikertzaileak eta Alberto Sotomayor Kutxa Fundaziokoak koordinatu dute lana, eta 11 pertsonaren ezagutzan eta esperientzian oinarritu da; hauek dira pertsona horiek: gaian adituak diren Miren Gutierrez, Iñaki Pariente eta Jorge Campanilla; Gipuzkoako Foru Aldundiko Datuak Babesteko ordezkaria, Mikel Ulacia; enpresa teknologikoen ordezkariak: Cristina Murillo, GAIA klusterrekoa, Iñaki del Río, Ibermaticakoa, eta Arantxa Rentería, Tecnaliakoa; erreferentziatzko bi erakunde soziosanitariotako zuzendariak: Ander Urrutikoetxea, Onkologikoakoa, eta Gerardo Amunarriz, Matia Fundaziokoak; eta gizarterakundeetako ordezkariak: Consuelo Cid, Nagusilaneakoa, eta Adriana Martínez, APTESeakoa.

Horiek guztiek, hilabeteetako azterketa eta lanaren ondoren, oinarritzko 3 ekintza proposatzen dituzte:

1. **Prestakuntza eta sentsibilizazioa.** Herritarren *ahalduntze teknologikoa* bultzatzeko, datu pertsonalen babesa azpimarratuz eta, aldi berean, datuak behar bezala eta errespetuz tratatzeak ikerketa biomediko, osasun, administrazio-kudeaketa, gizarte-zerbitzu, egoera ahulean dauden kolektiboentzako arreta, garapen ekonomiko, berrikuntzara eta abarretarako **-guztion onerako**, alegia- eskaintzen dituen aukerak azpimarratuz.

## POR UN USO RESPONSABLE DE LOS DATOS

Nos encontramos inmersos en una **Cuarta Revolución industrial**, un profundo cambio económico y social basado en la digitalización y que tiene como combustible primordial los datos. Sin embargo, persiste un gran desconocimiento social sobre el uso de los datos, sobre sus posibilidades, sus potenciales beneficios y sus riesgos, y ello da lugar a una percepción distorsionada sobre los peligros del uso y reutilización de datos sin contemplar la cadena de valor económico y social que proporciona.

Por ello, este [Pacto Pro Data Gipuzkoa Ituna](#), elaborado en una de las comunidades de la iniciativa 'Eta orain, zer', es una decidida iniciativa multidisciplinar para promover un uso socialmente responsable de los datos que genere confianza social y que esté centrado en las personas, sobre la base de **3 sólidos principios éticos**: Seguridad y protección, garantizando la privacidad; promoción de la inclusión, la equidad y la transparencia; y protección del medio ambiente y de las generaciones futuras.

Su elaboración ha sido coordinada por Txetxu Ausin, investigador del CSIC y de Globernance, y Alberto Sotomayor de Kutxa Fundazioa, y se ha basado en el conocimiento y experiencia de 11 personas, expertos/as de la temática como Miren Gutierrez, Iñaki Pariente y Jorge Campanilla; del Delegado de Protección de Datos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Mikel Ulacia; representantes de empresas tecnológicas como Cristina Murillo del clúster GAIA, Iñaki del Río de Ibermática y Arantxa Rentería de Tecnalia; los directores de dos instituciones socio-sanitarias de referencia como Ander Urrutikoetxea de Onkologikoa y Gerardo Amunarriz de Matia Fundazioa; y representantes de organizaciones sociales como Consuelo Cid de Nagusilan y Adriana Martínez de APTEs.

Todos ellos/as, tras meses de análisis y trabajo, proponen 3 acciones básicas:

1. **Formación y sensibilización.** Para el *empoderamiento tecnológico* de la ciudadanía, haciendo hincapié en la protección de los datos de carácter personal y, a la vez, en las oportunidades que un tratamiento correcto y respetuoso de los datos ofrece para la investigación biomédica, la salud, la gestión administrativa, los servicios sociales, la atención a colectivos desfavorecidos, el desarrollo económico, la innovación...; esto es, **para el bien común**.

2. **Eragin etikoaren ebaluazioak.** Datuetan oinarritutako proiektu eta ekimen orok alborapenak eta diskriminazioak saihestu ditzan, haien balio-katea eta gizarte-eragin positiboa zehaztuz.

3. **Pro Data Commons Plataforma sortzea.** Datuetan oinarritutako proiektuak bultzatu, erraztu eta komunikatzeko, instituzio, erakunde, ikerketa-zentro, enpresa eta herritarren entitateak **konektatuz**, **datuaren ekonomia zirkularra** bultzatzeko helburuarekin.

**Big Data** guztion onerako **duen gaitasunean sinesten duen horietako bat bazara, Itunarekin bat egitera gonbidatzen zaitugu, HEMEN sinatuz.**

**ITUNA SINATU**

Informazio gehiagorako:

[kaixo@etaorainzer.eus](mailto:kaixo@etaorainzer.eus)

[Hasiera - Eta Orain Zer](#)

2. **Evaluaciones de impacto ético.** Para que todo proyecto e iniciativa basada en datos evite los sesgos y discriminaciones, detallando su cadena valor y su impacto social positivo.

3. **Creación de la Plataforma Pro Data Commons.** Para impulsar, facilitar y comunicar proyectos basados en datos **conectando** instituciones, organizaciones, centros de investigación, empresas y entidades ciudadanas, con el objetivo de impulsar una **economía circular del dato**.

**Si eres de las personas que creen en el potencial del Big Data para el bien común, te invitamos a que te adhieras al Pacto, firmándolo AQUÍ.**

**FIRMA EL PACTO**

Para más información:

[kaixo@etaorainzer.eus](mailto:kaixo@etaorainzer.eus)

[Hasiera - Eta Orain Zer](#)